

EAJK PSErekin dituen aliantzei men eginez hezkuntza sistemak behar dituen aldaketak egiteko oztopo den EAeko hezkuntza lege berria onartu du

LABek ezezko borobila ematen dio gaur onartu den Hezkuntza Legeari eta borrokan jarraituko du hezkuntza-sistemak behar dituen eraldaketak gauzatu, burujabetzan sakondu eta eskola publikoa eta euskara ardatz dituen legea eskuratu arte.

Prozesu luzea izan da hezkuntza legea osatzekoa, hezkuntza komunitateko sindikatu eta eragileok 3 urte luzeko borrokan murgildu gaituena. LAB Sindikatuak burujabetzan sakondu lezakeen lege berria erdiesteko aukera baliatu eta eragiteko determinazioa izan du hasieratik eta hori lortzeko ez dira falta izan legeari egindako ekarpen edo alegazioak, mobilizazio eta grebak edota trantsiziorako proposamenak.

Hezkuntza akordioaren aurretik prozesu osoan eragiteko Dekalogoak aurkeztu genuen; batetik, hezkuntza-sistemaren antolaketa eta ereduaren errotik eraldatzeko, eta bestetik, langilean aintzat hartu eta lan-baldintzak hobetzeko.

Parlamentuan hainbatetan LABen ekarpen eta alegazioak aurkeztu ditugu: hezkuntza akordioari, lege zirriborroari zein lege aurreproiektuari. Mobilizazioak eta grebak burutu ditugu, beste sindikatuarekin elkarlanean zein LABek bakarrik ere. Eredu guztietako langileak egon gara borrokan Haurreskola Partzuergo publikoan, eskola publikoetan, ikastoletan, gizarte ekimeneko ikastetxeetan eta jangeletako hezitzaileak ere.

Bada, prozesuaren bukaerara helduta aukera galdu du EAJk eta atea itxi dio hezkuntza sistemak behar dituen aldaketak egiteko behar genuen legeari. PSErekin dituen aliantzei men eginez alderdi politikoen artean sinatu zuten hezkuntza akordioan adostutakoari muzin egin dio eta ituntze-sistema unibertsalean sakonduko duen zein hizkuntza ereduaren oinarrituko den legea onartu du.

Segregazioari aurre egiteko zenbait neurri positibo kenduta, onartu duten Legeak egiturazko aldaketei atea itxi eta egungo hezkuntza ereduaren gabeziak iraunaraziko ditu: hezkuntza eskumen mugatuak, euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak, mugarik gabeko ituntze sistema unibertsala, laikotasunik eza eta eskola publikoaren azpigarapena nahiz segregazioa dakarren hezkuntza sistema duala.

LABek urte guzti hauetan egindako determinazio berarekin jarraituko du borrokan onartu berri den lege honek beste 30 urte luzez iraun ez dezan eta hezkuntza sistemak behar dituen eraldaketak lortzeko zein Euskal Herriak bere hezkuntza burujabea antolatzeko duen eskubidea egikaritzeko behar dituen hezkuntza legeak eskuratu ditzan.

Sare publiko bakar deszentralizatuan antolaturiko eta euskararen murgiltze ereduaren zein Euskal Curriculumean oinarrituriko hezkuntza sistema propioa behar dugu eta hori gaurdanik eraikitzen hasteko trantsiziorako tresnak. Gaur Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan onartutako legea ez da horretarako tresna, baizik eta kontrako norabidean doan legea. Hortaz, langileok ditugun tresnak eskutan LAB sindikatuak eragiten jarraituko du.

Euskal Herrian, 2023ko abenduaren 22an